

## Eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioak sustatzeko dirulaguntza

### Fitxa interneten bistaratu

## INFORMAZIO OROKORRA

### Helburua

Oinarri hauen xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoan energia-komunitate berriak sortzeko dirulaguntzak norgehiagoka bidez ematea arautzea. Era berean, oinarri hauen xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoan dagoeneko eratuta dauden energia-komunitateei zuzendutako dirulaguntzak ematea, eguneroko kudeaketa egiteko eta eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioetan inbertsioak egiteko ere.

Zehazki, honako jarduera hauek hartuko dira diruz laguntzeko modukotzat:

- Energia-komunitateen prestakuntza erraztera bideratutakoak, zehazki:

- -Energia-komunitateak eratzeko partaidetza-prozesuak antolatzea-
- Abian jarri nahi diren energia-komunitateei buruzko informazio- eta publizitate-kanpainak.
- Interesdunen aurreinskripzioarako beharrezko baliabideak prestatzea (web orriak, inskripzio-orriak, etab.)-
- Energia-komunitatearen bideragarritasun tekniko-ekonomikoaren eta hartu beharreko gobernantza-aukeren azterketa.-
- Energia-komunitatea eratzeko legezko agiriak idatzi eta inskribatzea (estatutuak, eskritura publikoak, etab.)-
- Energia-komunitateekin lotu nahi diren eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioen bideragarritasunari buruzko azterlanak.

- Eratutako energia-komunitateei laguntzeko direnak, zehazki:

- Funtzionamenduan dagoen energia-komunitatearen kudeaketari laguntzeko eta haren jarraipena egiteko jarduerak
- -Eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioak martxan jartzeko jarduerak. Instalazioen proiektu teknikoak eta horien gauzatzea barne hartuko ditu.

Diruz laguntzeko modukoak izango dira soilik Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatutako proiektu edo instalazioak, baldin eta ekipo berriez osatuta badaude eta aldez aurretik erabili ez badira.

### Nork tramitatzen du

- INGURUMENEO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DPTUA.
- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia

## HASIERA ETA ESKAERA

### Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

[Agiri eta ereduetara sarrera](#)

### Internet bidezko eskaera

[Sakatu izapidetzara joateko](#)

## INFORMAZIO OSAGARRIA

### Informazio gehigarria

[Informazio zehatza](#)